



Sagardogile liburuaren egileak eta sagardogileak, Sagardogilean, aurkezpen ekitaldian. SAGARDOAREN LURRALDEA

AITZINDARIAK, 'SAGARDOGILE' LIBURUAN

Gipuzkoako hemeretzi sagardogile beteranoren testigantzak jasotzen dira 'Sagardogile' liburuan. Testuak Joxemi Saizarrek idatzi ditu, eta argazkiak Joseba Urretabizkaia egin ditu.

Astigarragako Sagardogilean aurkeztu zuten *Sagardogile* liburuak, urriaren 18an, Joxemi Saizar kazetari eta idazleak eta Joseba Urretabizkaia argazkilaria, liburuan parte hartu duten sagardogileekin batera.

Txotx egiteko errituan aitzindadaria izan diren Gipuzkoako hemeretzi sagardogile beteranoren testigantzak jasotzen dira liburuan. Sagardo ekoizle horiek 65 urtetik gora dituzte, eta, duela 40 urte inguru galtzearen zegoen tradizio bat berreskuratu, indartu eta modernizatu dute azken hamarkadetan.

Prozesu horren bilakaera azaltzen da Joxemi Saizarrek idatzitako testuetan eta Joseba Urretabizkaia egindako argazkietan: nola zabaldu zituzten sagardotegiak, nolako gorakada izan zuen txotx garaia, zenbat handitu ziren instalazioak, eta nola sartu zen hozte sistema, elaborazioa eta botilara-

zte mekanizatu, ekoizpena hobetu, higiene aldetik aurrerapenak ezarri, komertzializazioa zabaldu... Hemeretzi pertsona horiek hasitako lana nabarmentzen da liburuan, eta hurrengo belaunaldiak emandako segida: horri guztiari esker, sagardoaren kalitatea hobetzea eta ekoizpena handitzea lortu dute.

JAKINDURIA TRANSMITTITU

Gaur egun gure artean ez dauden askoz gehiago ere izan zirela jakinda, sagardogile hauen iritzia eta argazkiak ageri dira liburuan: Juan Jose Aburuza (Aburuza sagardotegikoa), Juan Goikoetxea (Altzueta), Jose Gregorio Begiristain (Begiristain), Jose Miguel Bereziartua (Bereziartua), Jose Cruz Calonge (Calonge), Rufino Zipitria (Eguzkitza), Juan Bautista (Elorrabi), Felix Garmendia (Etze Zuri), Isidro Iguaran (Eula), Jose Gofi (Gurutza), Juan Ignacio Astiazaran (Iruin Astiazaran), Jose Mari Lasa (Isastegi), Asentxio

Intxauspe (Itxas-Buru), Sebastian Zabalegi (Oiarbide), Jose Antonio Iparragirre (Otatza), Joaquin Otaño (Petrategi), Rosario Arruti (Txindurri Iturri), Miguel Zapiain (Zapiain) eta Jose Antonio Gainerain (Zelaia).

Euskal sagardo naturala XXI. mendeko edari kalitatezkoa eta mundu osoan ezaguna izatea lortu duten aitzindari horien merezimendua onartzea izan da liburugileen helburuetako bat, erakundeen laguntza ahaztu gabe. Beste helburu bat, berriz, pertsona horien jakinduria eta testigantza jasotzea, hurrengo belaunaldiak transmititzeko.

Sagardoa eskuz egiteari utzita ekoizpen modernoa nola landu den zehaztu dute liburuan: bakoitzak nola egin duen lan hori bere etxean modu batera, edari bizi eta aldakor hori bere gustura moldatuz, bezeroaren onarpena lortu nahian. Halaber, Euskal Herriko sagararen eta sor-marearen aldeko apustua ere azpimarratu dute *Sagardogile* liburuan.

Itxas-Buru
Sagardotegia

SAGARDO SALMENTA SAGARDOTEGIAN

Osiñaga Auzoa
20120 HERNANI
TEL. 943 556 879
www.itxasburusagardotegia.com

TOLARE
SAGARDOTEGIA

BEGIRISTAIN
tolare sagardotegia

Iturriotz baseria - 20267 **Ikaztegieta** - ☎ 943-65 28 37 - 607-36 57 43
Faxa: 943-18 74 06 • s.begiristain@terra.es

BERTAKO
SAGARREKIN
EGINDAKO
SAGARDOA

EGYZKITZA
TOLARE SAGARDOTEGIA

Usabal/Auzoa, Amaroiz • Tel.: 943 67 26 13 • 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)

SETIEN sagardotegia

Iritsi da txotx denboraldia

Oztaran bailara, 11
Gurutza Berri etxea
Tel.: 943-55 10 14 • **URNIETA**

Urtarrilaren 18an **ZABALDUKO DITUGU ATEAK!**

oialume zar
sagardotegia
www.oialumezar.com
Mikel Arozamena 16, ASTIGARRAGA tel. 943 55 29 38